

1. IDEIA

Etxeko janaria egin eta salduko dugu. Bertakoak diren lehengai freskoak erabiliko ditugu, Zarauzko baratzetatik ekarri berriak. Garaian garaiko euskal lehengaiak erabiliko ditugu besteak beste, inguruko gastronomia sustatzeko.

Elikadura osasuntsu eta naturalak eskainiko ditugu, eta mota guztietako janariak sukaldatu arren, batez ere euskal gastronomia bultzatuko dugu.

Gure ideia nagusia jendeak garaian garaiko eta etxeko janaria jateko aukera izatea da, askotan ez baitugu etxean prestatzeko denborarik izaten. Mota guztietako platerak eskainiko ditugu, edozein intolerantzia, alergia, gaixotasun... kontuan hartuz. Zarautzen izango dugu denda fisikoa, erdigunean, eta sarean ere gurekin kontaktatu eta eskaerak egiteko aukera egongo da.

